

## AITA KANDIDO IZAGIRRE O.F.M. IL DA

1967-ko Iraillaren 12-an Arantzazun il zan. Luis Mitxelenak, berri triste au jakiñarazi nionean, onela erantzun zidan: «Euskal dialektologorik onenetakoa galdu dugu, Bonaparte-ren antzekoa, bista mikroskopikoa zorrotzago zuena, Schuchardt-ek esango zukean bezala, makroskopikoa baiño».

Aita Kandido Urretxuan jaio zan. 1913 urtean, Ipiñarrieta jauregian, ain zuzen ere. Apaiz ikasteak frantziskotarretan egin zituen. 1928 urtean praille sartu eta 1937-an meza berria eman zuen Mutikoen latin irakasle izandu da, bai Foruan eta bai Arantzazun.

Euskalkien berezitasunak eta toki jakin bateko euskera modua aztertzen gailurtu zan. Lan mueta ortarako bear diren arimako doaez ornitua zegoen: pazientzia, iraupena, zeaztasun gose andia. Dozena erdi bat txosten utzi digu Boletiniñean, Euskera-n eta Anuario del Seminario Julio de Urquijo agerkarietan. Erronkari, Ultzama, Altsasu eta Tolosako euskera moduaz dira txosten oiek; baita Oñatiko liñagiñen iztegitxoa ere eman zuen.

Baiña aren obra nagusia, aren bizitzako zati andi bateko lana, bukatu gabe gelditu da: Arantzazu inguru ontako euskera moduaren azterketa oso eta sakona. Txartelak eundaka utzi ditu, gure baserrietako agure eta amona zaharrei artutako gaiek. Egunen batean gai guzti oiek argia ikusiko al dute!

Gizon umilla eta ixilla zan, ezer gutxikin bizitzen ikasia (Gaurko egunean ez da jakinduri makala!). Txori-zale aparta ere ba zan, eta makiña bat gauza zekian oietaz. Arantzazuko baserritarrek ez dute berealakoan abaztuko Aita Kandido. Euskeraren aitzakiz adiskide min egin baitziran berarekin.

AKI letrekin izenpetzen zituen bere lanak (Aita Kandido Izagirre).

Goian bego gure Aita Kandido maitea!

A. Luis Villasante

## ANDIMA IBIÑAGABEITIA IDOYAGA (1907-1967)

Euskaltzaindia'ren laguntzaille zan Andima Ibiñagabeitia'ren il-berria izan dugu Caracas'tik. Aspalditik erbesteraturik, azken urte auetan Venezuela'ko uri nagusian lizi zen. Berakin .euskerak langille leial bat galdu du eta guk adiskide on bat.

Bizkaiko Elantxobe'n jaioa zan 1907'ko ilbeltzaren 26'an. Batxilera Tudela'n estudiantu zuen. Gero, eleiz ikastaroak: Humanidadeak Loyolan; filosofia, matematikak eta izadi-jakintza Oña'n; Teologija, Ius kanonikua eta abar Marneffe'n (Belgique).

Gaztetxo asi zan euskeraz idazten, Loyolan Humanidadeak ikasten egoan denbora aretan, eta geroztik euskerazko aldizkaririk geienetan idatzi du, batez ere «Euzko-gogoa», «Euzko-Deya», «Gernika», «Alderdi», «Egan» eta abar. Eta, Caracas'en asi berri zen «Eman...» aldizkariaren euskerazko saillaren zuzendaria. Iñoiz, Elentxu, Norbait eta Idoyaga izenordeekin argitaratu zituen bere lanak.

Erderaz, *Aprenda el vasco en 60 horas* idatzi zuen, aspaldi Zarautz'ko Itxaropenak argitara emana. Eta, bere euskerazko liburuak: *Euskera irudi-bidez* (Euskera básico), Paris'en 1953'an; Bergili'ren (Virgilio) *Unai-kantak* (Bukolikon) eta *Alor-kantak* (Georgikon) euskeratu zituan, Bilbon 1966'an argitaratuak izan dira Bergili'ren *Idazlanak osorik* inenezko liburuan, Aita Onaindia'k itzulitako *Enearena*'kin batean. Bena-vente'ren *Abere indarra* (La fuerza bruta) antzerkia euskeratu zuan, 1951'ean Guatemala'ko «Euzko-gogoa»n argitaratua.

Ovidius'en *Maita-bidea* eta beste zenbait lan euskerara itzuliak argitara gabe jarraitzen dute.

Euskera eta euskal literaturaren irakasle egin izan du Paris'en eta Caracas'en. Paris'en, bere ikasleak izan ziren J. Mirande eta D. Peillen, beste zenbaiten artean. Andima, gizon jakituna eta apala genuen, ezagutzera eldu ziran guztiak maitatua eta ar-emana izan dugunok ere ez gutxi; ain zabala ta maitalea bai zen bere biotza. G. B.

J. San Martín

#### JULIAN BARANDIARAN KORTAZAR «AITA EMILIANO» (1904-1967)

Markiñan, abenduaren 13-an il zan Euskaltzaindiaren laguntzaille zan Julian Barandiaran jauna, karmeldarra, praille izenez Jesus Aurtzoaren Aita Emiliano.

Aita Emiliano Gipuzkoako Eskoriatza errian sortu zan 1904-ko epaillaren 9,an. Nafarroako Milafrankan, Markiñan, Gazteiz'en eta Bilbon egin zituan bere eleiz-ikasketak.

1921-ean asi zan «Euskal Esnalea»n euskeraz idazten. Geroztik aldizkari askotan idatzi izan du, batez ere «Karmel», «Olerti» eta «Zeruko Argia»n.

Argitaratu herri dugu bere *Euskal musikolari bikañak* (Itxaropena Argitaldaria-ren «Kuliska Sorta»n 65-a). Izan ere musika zuen bere doaietarik bereziena. Karmeldar ikastetxeetan ikasitakoaz gainera Monserrat, El Escorial, Madril eta Gazteiz'en egin zituan bere ikastaroak. Ortik zuen Maestro de Canto Gregoriano titulua irabazita. Baita ere, badu erderazko liburu bat *Psallite Sapienter* (Compendio de Música), 1956-an argitaratua.

Euskeraz argitaratu dituan liburuak, auek dira: *Andre Mari Euskalerriko mendietan*, Bilbao, 1952; *Andre Mari gaztediaren eskuetan*, Zarautz, 1954; eta aurten argitaratu duen *Euskal musikolari bikañak*.

Argitaratu gabeen artean gelditzen dira: *Andre Mari gaztediaren biotzetan*, *Andre Mari Mirarietan*, Gar-Mar'en «Sugerencias» euskeraz (I Atala). Baita ere itzuliak zituan San Juan de la Cruz'en *Cántico espiritual* (Gogo-abestia) eta *Llama de amor viva* (Maitasun-sugar bizia).

Oiez gainera, urteetan zear bildutako Euskal-esakera sail ugari xamar bat zuen, eta oraintxi Euskaltzaindiari emandako *Eresi Ihasbidea*.

Euskerazko zenbait artikulutan maiz erabili dituan izenordeak dira: Olagoiti, Zapal eta Julen.

Azken urte onetan Euskaltzaindiaren billera guzietara agertzen zan, ta azaroaren 24-an ikusi genuen azkenengo aldiz gure adiskide apal eta zintzoa. Euskeraganako maitasunak etzun neurririk beregan eta Markiñan euskerazko ikastolak jartzeko lanetan bizkor ibili zan. Beraz, euskerak eta guk adiskide on eta leial bat galtzen dugu. G. B.

J. San Martín.